

## LASARTE-ORIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2024ko urria

5. dokumentua

### EGIKARITZE-LABURPENA

**TALDE IDAZLARIA:**

**ZUZENDARITZA:**

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

**IDAZLARIAK:**

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa  
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa  
Iñigo Peñalba Arribas, arkitekto doktorea  
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua  
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

**KOLABORATZAILEAK:**

Endara Ingenieros Asociados, S.L.  
- Igor Martín Molina, BUPetako ingeniaria  
- Garo Azkue San Emeterio, BUPetako ingeniaria  
Ecolan, ingurumen-azterketak eta -kudeaketa (eragin akustikoaren azterketa)  
- Jose Carlos Irurzun, biologoa.  
- José Ramón Masferrer, biologoa.  
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa  
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa

**GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA**

Angel Uranga, hirigintzako arduraduna.  
Ainara Arbizu, udal arkitektoa.  
Ibón Rosales, udal bulego teknikoko arkitektoa.  
Itziar Gurrutxaga, ingurumeneko udal-teknikaria.  
Udal-zerbitzuak, oro har.

## **AURKIBIDE OROKORRA.**

### **1 Dokumentua. MEMORIA**

- 1.1 Dokumentua. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN EGIKARITZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.
- 1.2 Dokumentua. GEHIENENKO ETA GUTXIENENKO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.
- 1.3 Dokumentua. GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
- 1.4 Dokumentua. HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
- 1.5 Dokumentua. INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN TXOSTENA. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA. Azterketa Akustikoa, Energia Jasangarritasunaren Azterketa eta Zonako Planak hartzen ditu.

### **2 Dokumentua. HIRIGINZA ARAUAK.**

- 2.1 Dokumentua. HIRIGINTZA ARAU OROKORRAK.
- 2.2 Dokumentua. HIRIGINTZA EREMUEN HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK.
- 2.3 Dokumentua. KATALOGOA.

### **3 Dokumentua. AZTERKETA EKONOMIKOA. JARDUKETA PROGRAMA.**

- 3.1 Dokumentua. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA.
- 3.2 Dokumentua. EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN MEMORIA.
- 3.3 Dokumentua. JARDUKETA PROGRAMA.

### **4 Dokumentua. PLANOAK**

### **5 Dokumentua. EGIKARITZE-LABURPENA**



**"5. EGIKARITZE-LABURPENA" dokumentua**

## AURKIBIDEA

I.- XEDEA. ....	1
II.- LASARTE-ORIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA .....	1
III.- PROIEKTATUTAKO ANTOLAMENDUAK INDARREAN DAGOENA ALDATZEN DUEN EREMUEN MUGAPENA .....	4
IV.- HIRIGINTZAKO EGIKARITZE EDO ESKU-HARTZE ANTOLAMENDUA EDO PROZEDURAK ETETEN DIREN EREMUAK ETA ETENALDI HORREN IRAUPENA .....	6
V.- ONDORIOAK .....	6

---

### ERANSKINA:

Plan Orokorraren idazketa gidatu behar duten irizpide eta helburuak berresteko akordioa,  
2021eko azaroaren 4ko osoko bilkuran hartutakoa.

## I.- XEDEA.

Dokumentu honen xedea Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren egikaritze-laburpena ezagutzera ematea da, arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera (2015eko urriaren 30eko Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Testu Bategineko 25. artikulua; 2/2005 Legea garatzen duen premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuko 32. artikulua).

Lege-esparru horretan berariaz adierazten da hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko edo aldatzeko prozeduretan, esku artean dugun kasuan bezala, jendaurrean jarritako dokumentuen artean honako alderdi hauek adierazten dituen egikaritze-laburpena sartu beharko dela:

- a) Proiektatutako antolamenduak indarrekoa aldatzen duen eremuen mugapena, eremu horien kokalekuaren planoak eta aldaketaren norainokoa.
- b) Dagokionean, dela egungo antolamendua, dela hirigintza egikaritzeko prozedura, dela hirigintzan esku hartzeko prozedurak eten diren eremuak eta etenaldiaren iraupena.

Agindu hori bera errepikatzen da 105/2008 Dekretuko 32. artikuluan, eta osatu ere egiten du, indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten eremuen mugaketei dagokienez. Izan ere, arauaren arabera, halakoetan txertatu egin behar dira *egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko egoera konparatzeko aukera emango duten planoak edo informazio grafikoak*.

Horretarako, hurrengo epigrafeetan honako hauek sartuko ditugu, laburbilduta:

- \* Plan Orokor berriaren aurrekariak eta helburuak, irizpideak eta proposamenak (III. epigrafea).
- \* Indarreko Arau Subsidiarioen eta Plan Orokor berriaren arteko azterketa konparatua, ondoriozko aldaketarik garrantzitsuenak identifikatzeko (IV. epigrafea).
- \* Plan Orokorraren eraginak, indarrean dagoen hiri-antolamendua edo haren egikaritzea eteteari dagokionez (V. epigrafea).

Aurretiaz, II. epigrafean, laburtuta azaltzen dira Plan Orokor berria egiteko prozesuan orain arte burututako lanak.

## II.- LASARTE-ORIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA.

Lasarte-Oriako udalak udalerriko udal-plangintzako Arau Subsidiarioak (aurrerantzean arau Subsidiarioak), 2005eko martxoan onartutakoak, berrikusteko lanei ekitea eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor (aurrerantzean HAPO) bihurtzea erabaki zuen, aplikatu beharreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko legeria berrira egokituta, eta 2018ko martxoan hasi zen prozesua. Hala, data horretatik gaur egun arte HAPO berria zehazteko lanean aritu gara.

Dagokion heltze-prozesuaren ondoren, 2021eko azaroaren 4ko osoko bilkuran, HAPO formulatzeko jarraitu beharreko irizpideak eta helburuak berretsi ziren. Dokumentu honek irizpide eta helburu horiei erantzuten die eta Udalak aztertu eta hasierako onspena emateko idatzi da, prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

HAPOn dokumentuak plangintza-tresna honi dagozkion zehaztapen eta eduki guztiak biltzen ditu, ingurumen-ebaluazio estrategikoari eta hizkuntza-inpaktuari buruzko azterketak barne, eta udalerrriaren etorkizun hurbilerako proiektua da.


2023ko martxoaren 30ean eman zitzaion hasierako onespena dokumentuari, eta jendaurrean jarri eta behin-behinean onartu zen 2024ko apirilaren 18ko udal-osoko bilkuran. Orain formulatzen den dokumentuan jaso da prozesu horren emaitza, Plana behin betiko onar dadin.

## II.1.- Lurralde-eremua

Plan Orokorrak Lasarte-Oriako udal-mugarte osoa du xede. Udal-mugarteak 5,81 Km<sup>2</sup> pasako azalera du eta, 2018ko urtarrilaren 1ean egindako Lasarte-Oriako Udal Erroldaren urteko berrikuspenaren arabera, 18.282 biztanle zituen. EINen arabera, 2021eko urtarrilaren 1ean udalerriak 18.893 biztanle zituen.

Plan Orokorrak hartzen duen lurraldean, interes-gatazkek bateratu behar ditu eta lehentasunak zehaztu behar ditu hartzen duen epemugan interes publikoko gaiei erantzuna emateko xedez. Xede horretarako, sakon aztertu da lurralde hori.

Hurrengo irudian udalerrriaren erliebea bereizten da, lurraldearen konfigurazio fisikoa argi eta garbi adierazten duena.



Lasarte-Oriako irudikapen hipsometrikoan, udalerriak itsas-mailatik duen altuera txikia ikusten da eta lurraldeak hego-ekialdean soilik hartzen duela altuera.



## **II.2.- Plangintza-irudiaren hautaketa**

Planteatutako helburuak, hau da, udaleko hirigintza-plangintza orokorra (udal-plangintzako Arau Subsidiarioak) berrikusteak, 2006az geroztik xedatutako lege-testuinguru berrian, legegintza horretara egokitutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat formulatzea eskatzen du Lasarte-Oriako lurraldearen antolamendu osorako.

Gorabehera horiek kontuan hartuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da tresnarik egokiena eta zehatzena aplikazioko lege-esparru berriaren arabera proposatutako helburua lortu ahal izateko.

## **II.3.- Plan Orokorra idatzi eta izapidetzeko eta informazio publikoa emateko eta herritarrek parte-hartzeko prozesua.**

2017an, Lasarte-Oriako udalak erabaki zuen 2005ean onartutako bere Arau Subsidiarioak berrikusteko lanei ekitea eta HAPO bihurtzea, aplikatu beharreko lurzorua eta hirigintzaren legeria berrira egokitua. Egindako deialdiaren ondorioz, prozesua 2018ko martxoan hasi zen.

Lanak hasi ondoren, 2018ko uztailean lehen diagnostikoa egin zen eta 2019ko azaroan plangintza-aurrerakina eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko hasierako dokumentu estrategikoa (HDE) aurkeztu ziren. Bi dokumentuak aurkeztu ziren ingurumen-organoaren aurrean, organo horrek irismeneko dokumentua egin zezan. Dokumentu horiek udalak aztertu zituen eta hainbat izapide eta kontsulta egitea eragin zuten.

Oinarri horiekin, 2020ko uztailaren 1ean, Alkatetzaren Dekretu bidez, Herritarrek Parte hartzeko Programa onartu zen. Horren arabera, Aurrerakina jendaurrean jarri zen, besteak beste, 2020lp abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako udal-erabakiaren bidez. Halaber, herritarren parte-hartzea dinamizatu zen, herritarrentzako irekitako hainbat bileraren bidez, kolektiboekin bilera espezifikoak eginez, hitzaldiak, tailerrak, ibilaldi gidatuak, topaketak eta abar antolatuz. Prozesu horren ondorioz, 24 iradokizun-idazki aurkeztu ziren, behar bezala baloratu zirenak. Prozesuan bildutako arloko txostenak, egindako kontsulten erantzunak eta Ingurumen Organoak 2021eko otsailaren 25ean egindako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismeneko dokumentua ere aurkeztu ziren.

Herritarrek parte hartzeko prozesuaren ondorioetan jasotzen denez, "herritarren parte-hartzea, oro har, bat dator Aurrerakinaren irizpide orokorrekin". Bestalde, 2021eko irailaren 27an, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Aurrerakinari buruzko txostena egin zuen eta txostena ere Aurrerakinaren helburuekin bat zetorrela ikusi zen, prozesuaren jarraipenean aukeratu beharreko soluzioak zehaztearen kalterik gabe.

Bestalde, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, Aurrerakinaren berri eman zitzaizen udal mugakideei, baina Donostiako udalaren txostena baino ez zen jaso; Usurbilgo udalarekin, bestalde, harremanak egon dira.

Hala, 2021eko urtarrilean, herritarrek parte hartzeko eta ingurumen-arloko izapidetzea egiteko esparruan ordura arte jasotako iradokizun, kontsulta, dokumentu eta txostenei buruzko txosten bat idatzi zen.

Txosten horrek eztabaida-prozesu bat ireki zuen Udalean, Plan Orokorraren idazketa gidatzeko lehen aipaturiko irizpide eta helburuen berrespenarekin amaitu zena. Irizpide eta helburu horiek 2021eko azaroaren 4ko osoko bilkuran onartu ziren. Akordio horri dokumentu honek erantzuten dio eta I. Eranskinean gehitu zaio memoria honi.

Talde idazlariak akordio horren arabera lan egin du udal zerbitzu teknikoekin batera, HAPO berria egiten.

Prozesu horri esker, indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta arau horietatik sortutako hirigintza-egoeraren ondoriozko askotariko gatazkak konpontzeko premia berretsi ahal izan da, eta horretarako soluzio egokiak proposatu dira, lehendik dauden kokalekuen hiri-berroneratzearen bidez, eta lurzoru berriak artifizializatzea saihestu da.

Lan horren ondorioz, 2022ko uztailaren 15eko hirigintza-batzordean, ezarritako irizpide eta soluzioei erantzuten dieten plangintza-soluzioak aurkeztu ziren. Jarraian, Plan Orokorraren dokumentua izan da 2022ko urriaren 14ko eta azaroaren 14ko hirigintza-batzordeen xedea.

Bestalde, 2021eko irailaren 27an, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Aurrerakinari buruzko txostena egin zuen eta txostena ere Aurrerakinaren helburuekin bat zetorrela ikusi zen, prozesuaren jarraipenean aukeratu beharreko soluzioak zehaztearen kalterik gabe.

Aurreko guztiaren ondorioz, Udalak, 2023ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, HAPOren hasierako onarpena erabaki zuen, eta dokumentua jendaurrean jarri zuen. Jendaurrean jarri ondoren, behin-behinean onartu zen 2024ko apirilaren 18an. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin eta ingurumen-adierazpen estrategikoa egin ondoren, dokumentu honek prozesuaren emaitza guztia jasotzen du, eta plana behin betiko onartzeko formulatzen da.

#### **II.4.- Irizpideak eta helburuak.**

Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2021eko azaroaren 4an irizpideak eta helburuak berresteko hartutako erabakiak bideratu zuen Plan Orokorraren idazketa.

Zuzenean ezagutzeko, egikaritze-laburpen honen eranskinean jaso da.

### **III.- PROIEKTATUTAKO ANTOLAMENDUAK INDARREKOA ALDATZEN DUEN EREMUEN MUGAPENA.**


Proiektatutako antolamenduak Lasarte-Oriako udal-mugarte osoan lurzoruaren araubidea arautzeko baldintzak birdefinitzen ditu. Beraz, Plan Orokor berriak uda—mugarte osoari eragiten dio.

Hala ere, hemen nabarmendu behar da, alde batetik, Plan Orokor berriak, oro har, finkatu egiten duela hiri-lur gisa sailkatutako lurzorua eta, aldi berean, baliozkotu egiten duela eremu eta azpieroemu askoren plangintza, horietan birdoitzeak egitearen kalterik gabe.

Horregatik aipatu behar dira, egindako aldaketen irismena kontuan hartuta, proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena nabarmen aldatzen duela planteatzen den eremuak eta azpieroemuak, xede ditugun ondorioetarako:

- "1.1. Geltoki 7/9" azpieroemua
- "9.1 Bekoerrota" azpieroemua.
- "11 Kotxerak" eremua.
- "16 Oriagain" eremua.
- Oztaran/Arranbideko "c.1/19.1" partzela
- Geltoki eta Sagardotegi kaleetako partzelak, egungo egoeran finkatzen direnak.
- Indarreko Arau Subsidiarioetako "Goiegi-Gora" eremua, deskalifikatu eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dena.

Hurrengo irudian grafikoki identifikatuta daude eremu, azpieroemu eta grafika horiek.



LIZENTZIAK ETEN ZAIZKIEN EREMUAK  ÁMBITOS OBJETO DE SUSPENSIÓN DE LICENCIAS

#### **IV.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA EDO HIRIGINTZAKO EGIKARITZE EDO ESKU-HARTZE PROZEDURAK ETETEN DIREN EREMUAK ETA ETENALDIAREN IRAUPENA.**

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 85. artikulua lizentziak etetea arautzen du hirigintza-planen hasierako onespeneren ondorioz, eta kontuan hartu beharko da horien idazkera berria abenduaren 21eko 18/2023 Legean xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan, Plan Orokor berriak eragiten dituen aldaketen irismenari erreparatuta, lizentziak etetea proposatzen da honako eremu edo azpierrezu hauetan:

- "1.1. Geltoki 7/9" azpierrezu
- "9.1 Bekoerota" azpierrezu.
- "11 Kotxerak" eremua.
- "16 Oriagain" eremua.
- Oztaran/Arranbideko "c.1/19.1" partzela
- Geltoki eta Sagardotegi kaleetako partzelak, egungo egoeran finkatzen direnak.
- Indarreko Arau Subsidiarioetako "Goiegi-Gora" eremua, deskalifikatu eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dena.

#### **V.- ONDORIOAK.**

Azaldutakoari erreparatuta, Plan Orokor berriaren hasierako onarpenak, besteak beste, aurreko epigrafeetan azaldutako eraginak izango ditu, indarrean dagoen hirigintza-antolamenduaren eta haren egikaritzearen etenari lotutakoak barne.

Etenaren indarraldia bi (2) urtekoa izango da, Planaren hasierako onespeneren akordioa argitaratutako biharamunetik kontatzen hasita.


Donostian, 2024ko urria



Sin: Santiago Peñalba



Manu Arruabarrena



Mikel Iriondo



Sin.: Iñigo Peñalba



Carmen Seguro

## ERANSKINA

**Lasarte-Oriako udalaren 2021eko azaroaren 4ko osoko bilkuran hartutako erabakia, Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentua idazteko prozesuaren jarraipenean kontuan hartu beharreko irizpideak, helburuak eta soluzioak berresteari eta hasierako onspena eman beharreko eta jendaurrean jarri beharreko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketari buruzkoa.**





**LASARTE-ORIAKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA  
NAIZEN FCO. XABIER A. EGEA JAUREGI JAUNAK,**

**D. FCO. XABIER A. EGEA JAUREGI, SECRETARIO  
GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-  
ORIA,**

**ZIURTATZEN DUT:** 2021eko azaroaren 11ko ohiko bilkuran udal honetako Udalbatzarrak, honako akordio hau hartu zuela:

**CERTIFICO:** Que el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 4 de noviembre de 2021, tomó el siguiente acuerdo:

**5.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO OINARRI IZANGO DIREN IRIZPIDE ETA HELBURUEN ONARPENA.**

**5.- APROBACIÓN DE CRITERIOS Y OBJETIVOS QUE SERVIRÁN DE BASE PARA REDACTAR EL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.**

Hirigintza, Obra eta Ingurumen Batzordeak, 2021eko azaroaren 3an egindako ohiko bilkuran emandako txostenaren berri ematen da:

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente en sesión celebrada el día 3 de noviembre de 2021:

Plangintzaren Aurrerapena jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko abuztuaren 5ean eta El Diario Vascon 2020ko uztailaren 28an argitaratutako iragarki baten bidez.

El Avance de Planeamiento se sometió a información pública mediante anuncio publicado en el Boletín oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de agosto de 2020 y en el Diario vasco de fecha 28 de julio de 2020.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Legearen 90. artikuluan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko organoetxostenak eskatu zitzaizkien babes zibilar, ingurumenari, kultura-ondareari eta natura-inguruneari buruz, eta honako txosten hauek jaso ziren:

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 90 de la Ley de Suelo del País Vasco se solicitaron informes de los órganos de Gobierno Vasco y Diputación sobre Protección Civil, Medio Ambiente, Patrimonio Cultural y Medio Natural, habiéndose recibido los siguientes informes:

.- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología.
- Dirección de Patrimonio Cultural

.- Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

Asimismo, se solicitaron informes a los Ayuntamientos colindantes, habiendo recibido informes del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el 26 de octubre de 2020.

Era berean, inguruko udalei txostenak eskatu zitzaizkien, eta Donostiako Udalaren txostenak jaso ziren 2020ko urriaren 26an.

Se ha emitido el Documento de Alcance del Plan General de Ordenación Urbana de Lasarte-Oria, mediante resolución del Director de Administración Ambiental de 25 de febrero de 2021.

Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Irismeneko Dokumentua eman da, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2021eko otsailaren 25eko ebazpenaren bidez.

Junto con el documento de Alcance se han remitido informes de las direcciones de Patrimonio Cultural y Patrimonio Natural y Cambio Climático, y de Atención de Emergencias.

Irismen-dokumentuarekin batera, Kultura Ondarearen eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzaren txostenak bidali dira.

Con fecha 4 de marzo de 2021, el equipo redactor concluye que ni el Documento de

2021eko martxoaren 4an, idazketa-taldeak



ondorioztatu zuen ez irismen-dokumentuak ez erantsitako txosten sektorialek ez dutela zalantzan jartzen aurkeztutako aurrerapen-dokumentua.

2021eko urtarrilaren 22an, idazketa-taldeak jasotako iradokizunei buruzko txostena egin zen.

Aldi berean, Hiritik At enpresak zuzendutako herritarren partaidetzarako prozesu bat gauzatu da, herritarrei irekitako bilerak, tailerrak, kolektiboekin bilera espezifikoak, ibilaldi gidatuak, eta abar eginez. Hiritik At enpresak txostena egin du, eta bertan adierazi du, oro har, herritarren parte-hartzea bat datorrela Aurrerapeneko irizpide orokorrekina.

2021eko irailaren 27an, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Aurrerapenari buruzko txostena egin zuen.

Urriaren 11n, idazketa-taldeak Plangintzako Aholku Batzordearen txostenaren edukari buruzko txostena egin zuen, eta bertan ondorioztatu zuen planteatutako irizpideak bat zetozeela Aurrerapeneko helburuekin; hala ere, Plana egiteko prozesuan, irtenbide egokiak zehaztu eta Aholku Batzordearen txostenetik desbideratzen direnak justifikatu ahal izango dira.

Dokumentazioa aztertuta eta aurrekoan oinarrituta, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV), kontrako lau botorekin (4 EH BILDU) eta bi abstentziorekin (2 ELOP), honako AKORDIOA hartzen du.

**LEHENA.-** Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenaren jendaurreko informazio-aldian egindako iradokizunei erantzutea, 2021eko urtarrilaren 22ko idazketa-taldeak egindako txostenean proposatutako moduan, eta, ondorioz:

- 2 (Tomas Arrizbalaga), 5 (Tomas Arrizbalaga) eta 8 (Zumaburu garajeen jabeak) zenbakietako idazkietan azaldutako iradokizunak Planean sartzea.

- Partzialki baiestea 20 (Inge Mendioroz

Alcance ni los informes sectoriales acompañados, ponen en cuestión el documento de Avance presentado.

Con fecha 22 de enero de 2021 se emite informe de las sugerencias recibidas.

Paralelamente se ha llevado a cabo un proceso de participación ciudadana dirigido por la empresa Hiritik At con reuniones abiertas a la ciudadanía, talleres, reuniones específicas con colectivos, paseos guiados, etc. La empresa Hiritik At ha emitido informe en el que afirma que en líneas generales la participación ciudadana se muestra acorde con los criterios generales del Avance.

Con fecha 27 de setiembre de 2021, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, emite informe sobre el Avance.

Con fecha 11 de octubre el equipo redactor emite informe acerca del contenido del informe del Consejo Asesor de Planeamiento, en el que concluye que los criterios planteados concuerdan con los objetivos del Avance sin perjuicio de que en el proceso de elaboración del Plan, se concreten las soluciones oportunas, y se justifique aquellas que eventualmente se desvíen del informe del Consejo Asesor.

En base a lo expuesto, sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con once votos a favor (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV), cuatro votos en contra (4 EH BILDU) y dos abstenciones (2 ELOP), ACUERDA lo siguiente:

**PRIMERO.-** Contestar las sugerencias efectuadas en el periodo de información pública del Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Lasarte-Oria de la forma propuesta en el informe emitido por el equipo redactor del 22 de enero de 2021 y, consecuentemente;

- Incorporar en el Plan las sugerencias expuestas en los escritos con los números 2 (Tomas Arrizbalaga), 5 (Tomas Arrizbalaga) y 8 (propietarios de garajes Zumaburu).

- Estimar parcialmente las sugerencias expuestas en los escritos con los números 20





Ibañez), 21 (Zabalaeta Auzolan) eta 22 (EH-BILDU) zenbakietako idazkietan azaldutako iradokizunak, aipatutako txostenean horien balorazioan azaltzen denaren arabera.

- Ezestea 3 (Tomas Arrizabalaga), 4 (Tomas Arrizabalaga), 7 (Tomas Arrizabalaga), 10 (Santiago Sarasola Yurrita) eta 13 (Iñigo Arruti) zenbakiekin identifikatutako iradokizunak, aipatutako txostenean egindako balorazioen arabera.

- Jarraitu beharreko plan orokorra egiteko prozedurara igortzea konponbide egokienak zehaztea 1 (Tomas Arrizabalaga), 6 (Tomas Arrizabalaga), 9 (Construcciones Sukia), 12 (Iñigo Arruti) eta 24 (Miren San Sebastian) zenbakiekin identifikatutako iradokizunei dagokienez, txostenean egindako balorazioen arabera.

- 14 (Rebeka Elola), 15 (Goizane Lopez) 16 (Unai Lasarte) eta 18 (Juan Iraola) zenbakiekin identifikatutako iradokizunei erantzutea, txostenean egindako balorazioetan emandako argibideekin.

- Adierazi behar da 11 (Idoia Telleria), 17 (Idoia Pikabea), 19 (Paula Herrador) eta 23 (Miren san Sebastián) zenbakiekin identifikatutako iradokizunetan azaldutako edukien xedea beste foro batzuetan aztertu beharreko alderdiak direla, ez baitira Plan Orokorrekoak.

**BIGARRENA.-** Plan Orokorra idazteko antolamenduirizpideak eta helburuak onartzea, Aurrerapenean jasotakoarekin bat etorritik, eta, bereziki, gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lurzoru berriak eraldatzea sailhestea, zehaztapen hauekin osatuko direnak:

- Ebazpen honen lehenengo puntuan osorik edozati batean onartutako iradokizunak kontuan hartu beharko dira.

- Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2021eko otsailaren 25ean emandako irismendokumentuan eta

(Inge Mendioroz Ibañez), 21 (Zabalaeta Auzolan) y 22 (EH-BILDU), de acuerdo con cuanto se expone en la valoración de los mismos en el informe mencionado.

- Desestimar las sugerencias identificadas con los números 3 (Tomas Arrizabalaga), 4 (Tomas Arrizabalaga), 7 (Tomas Arrizabalaga), 10 (Santiago Sarasola Yurrita) y 13 (Iñigo Arruti), de acuerdo con las valoraciones realizadas en el informe mencionado.

- Remitir al procedimiento de elaboración del Plan general a seguir, la concreción de las soluciones más propicias en relación con las sugerencias identificadas con los números 1 (Tomas Arrizabalaga), 6 (Tomas Arrizabalaga), 9 (Construcciones Sukia), 12 (Iñigo Arruti) y 24 (Miren San Sebastian), de acuerdo con las valoraciones realizadas en el informe.

- Responder a las sugerencias identificadas con los números 14 (Rebeka Elola), 15 (Goizane Lopez) 16 (Unai Lasarte) y 18 (Juan Iraola) con las aclaraciones formuladas en las valoraciones realizadas en el informe.

- Señalar que los contenidos expuestos en las sugerencias identificadas con los números 11 (Idoia Telleria), 17 (Idoia Pikabea), 19 (Paula Herrador) y 23 (Miren san Sebastián) tienen por objeto aspectos que habrán de tratarse en otros foros, al no ser propios del Plan General.

**SEGUNDO.-** Aprobar los criterios de ordenación y objetivos para la redacción del Plan General de conformidad con los recogidos en el Avance, en especial la de evitar la transformación de nuevos suelos actualmente clasificados como suelo no urbanizable, que se complementaran con las siguientes determinaciones:

- Se deberán tener en cuenta las sugerencias estimadas total o parcialmente en el punto primero de esta resolución.

- Se deberá dar cumplimiento a lo establecido en el Documento de Alcance



espedientean dauden txosten sektorialetan ezarritakoa bete beharko da.

- Kontuan hartu beharko dira Plangintza Kontseiluaren 2021eko irailaren 27ko txostenetik eratorritako irizpideak, hargatik eragotzi gabe Plana egiteko prozesuan irtenbide egokiak zehaztea eta Aholku Batzordearen txostenetik desbideratzen direnak justifikatzea.

**HIRUGARRENA.-** Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzen jarraitzea eta Plan Orokorren hasierako onespeneren dokumentua idaztea.

**LAUGARRENA.-** Ingurumen-azterketa estrategikoa idaztea, ingurumen-organoak bidalitako irismendokumentua kontuan hartuta.

Entitate Lokalen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduko 206. artikulua ezartzen duena betez, idatziz agerrarazten da honako erabaki hau jasotzen duen akta ez dagoela onetsita.

Eta, horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako ziurtagiri hau egiten dut, Lasarte-Orian, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hamabostean.

emitido por el Director de Administración Ambiental de 25 de febrero de 2021 así como en los informes sectoriales que obran en el expediente.

- Se deberán tener en cuenta los criterios emanados por el informe del Consejo de Planeamiento de fecha 27 de setiembre de 2021, sin perjuicio de que en el proceso de elaboración del Plan, se concreten las soluciones oportunas, y se justifique aquellas que eventualmente se desvíen del informe del Consejo Asesor.

**TERCERO.-** Continuar la tramitación del Plan General de Ordenación Urbanística y redactar el documento de aprobación inicial del Plan General.

**CUARTO.-** Proceder a la redacción del estudio ambiental estratégico teniendo en cuenta el documento de alcance remitido por el órgano ambiental.

De conformidad con lo establecido en el art. 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se hace constar que el acta en el que se recoge el presente acuerdo no se halla aprobada.

Y para que conste y surta los efectos procedentes expido la presente, en Lasarte-Oria a quince de noviembre de dos mil veintiuno.

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Acuerdo "CriteriosPGOU"